



3 GAZTEAK

Gaztelekuak hilabete honetan irekiko dituzte

Gazteleku berriaren irekiera hilabete honetan izango dela aurreratu zuen Tasio Arrizabalaga Gazteria eta festak sailerko arduradunak ostiralean eskainitako prentsaurrekoan. Zinegotziak azaldu zenez, txoko hau gazteek liburuak irakurri, etxeko lanak egin, gunea bilera gela bezala erabili edota berariei burututako beste edozein erabileratarako pentsatua dago.

4 ELKARTASUNA

Aitor Landa herritarraren aldeko elkartasun festa

Herriko pailazoek Aitor Landa haur lasarteoriatarren alde "Sentitu, pentsatu, ekin!" ikuskizuneko bi emanaldi eskaini zituen larunbatean. Garuneko paralisia du Aitorrek eta egun Galiziako zentro berezi batean dago behar duen tratamendua jasotzen. Kukuka eta Jalgunek ere elkartasun jaialdi erraldoi eta koloretsuan parte-hartu nahi izan zuten. Emanaldietan bildutako dirua Aitorren gurasoei tratamendua ordaintzen laguntzeko izango da.



Oreindik taldeko bost kideak Jalgiko oholzza gaiean, jendeak adi-adi entzun zuen kritika soziala eta amodioa gai nagusitzat dituen Berdinelite disko berriaren aurkezpena.

Oreindik taldearen itzulera, Jalgin

la urtebete jo gabe egon ostean kontzertu gartsua eskaini du herrian

Gutxitan hartzen du Jalgik halako itxura, gainezka egin zuen larunbata gauean Oreindik taldeko bost musikarien kontzertua ikusteko. Rock eta funkieraino osatutako kontzertua eskaini zuten, gitarren riff gogorak, bateriaren kolpe lehor zein tinkoak eta ahotsaren melodikotasuna ardatz hartuta, giro beroa jarri zuten aretoan.

Berdinelite diska berria aurkeztu zuen Lasarte-Oria, Zarautz, Andoain eta Donostiako musikariz osatutako boskoteak, ia hiru urte herriz herri eta oholtzarik oholzza kontzertuak ematen daramatzan Oreindik taldeak.

Hauen saioa amaitzean diskoaren azala eta kamisetaren diseinua egin dizkien Blami DJak dantzan jarri zuen Jalgi, festa gaueko ordu txikiak arte luzatuz.

Ez zen eguneko kontzertu bakarra izan ordea, Nia Moore King & The Bluebirds taldeak Mendi Kafe Rock tabernan ere eskaini baitzuen kontzertua Kultur Kale Zikloaren barnean.

Blues eta soul doinuak izan ziren protagonista, besteak beste Diana Krall handiaren "Stop this world", Bill Waiters-en "Aint no sunshine" edota Leonard Cohen musikarientzako "Halleluja" gisako kantuen bertsioak jo zituzten ordu bete pasatxo iraun zuen kontzertu goxoan.

Barrikotea eta bakarriketa

Abenden barrikotea egin zuten ostiral gauean. 30 lagun inguru bildu ziren afarian eta Mario Simancas bakarlarriak afalostearen gaurkotatuz gaitzen inguruan bakarriketa umoretsua eskaini zuen, topikoak hankaz gora jarri.



Nia Moore King & The Blue Birds Mendin eta Mario Simancas umoregilea Abenden.



MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Prezio berriak fotodepilazioan ETORRI eta GALDETU

Krisi garaian, guk ere esfortzua egin nahi izan dugu, gure prezioetan!

Foto depilazioa argi pultsatuekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

Adituak dio



Joxe Usabiaga
Odol emaleen Elkarte
Oria Beheko arduraduna

40 urte dira hasi ginela Gipuzkoako odol emaleen elkartearen baitan, herrian odola emateko aukera eskaintzen. Oraindik odolaren ordezkorik ez da asmatu beraz gizarteak ulertu behar du zein garrantzitsua den hau ematea. Garai batean auto istripu kopuru handia zela eta, odola ere asko behar zen baina egun berdin-berdin behar da. Egia da auto istripuak askoz gutxiago direla baina ebakuntza kopuru handitu da azken urteetan eta geroz eta gehiago behar dute odola gaixoen errekuuperazioa azkartu ahal izateko.

Hilabeteko azken astelehenean 17:30etatik 20:30era bitartean herriko osasun zentroan dago odola emateko aukera. Lehenengo aldiz ematera gerturatzeko den herritarrek sendagilearekin hitz egiten du emaila izan daitekeen jakiteko, hau da, gaixotasunik daukan edo pasa duen besteak beste jakiteko. Osasuntsu egotekotan, gizonetako urtean 4 aldiz eman dezakete odola eta emakumeek 3. Gainera jasotzen den odola analizatu egiten da beti eta azterketa hauetan zerbaiteko baliz, pertsonari abisatzen zaio bere medikuarekin harremanetan jar dadin.

Lasarte-Oria bada arazo bat, emaleen adina gorantz doa eta gazte jende gutxi animatzen da, batzuek 55 urtekoa da. 18 urterekin hasi eta 65 urte arte izan daiteke emaila, osasuntsu egotekotan 70 urte arte izan daiteke baina funtsezkoa da gazteek honen balioa ulertu eta emaila izatera animatzea. Hamar minutuko kontua da, bokata bat ematen da eta atse-denean geratzeko aukera eskaintzen da odola atera ondoren. Aipatu bezala urtean gutxitan egin daiteke beraz ez du esfortzu handirik egin behar. Iaz 329 odol emate egon ziren herrian 2011. urtean baino 10 gutxiago eta 2008an baino 25 gutxiago.

Odola behar da

Odol emaleen elkarteak urteak daramatza herrian, 40 hain zuzen. Lasarte-Oria udalerrri izateko egindako egitasmo, sinadura bilketa guztietan ere aktibo izan zen. Herrian eta Oria Beheko deritzon eskualdean Joxe Usabiaga da arduraduna.

Elkartearen helburua argia izan da bere sorreratik, bizitzak salbatzea. Gipuzkoan 1964. urtean sortu zenetik 550.000 odol-emate baino gehiago egin dira eta odol emaila kopuru gorantz joan da urtetik urtera. Auto istripu kopuru izugarria zela eta, odol premia oso handia izan da baina azken hamarkadan auto ezbeharren kopuruak behera egin arren, odol beharra mantendu egin da. Ebakuntza askotan odola sartzen zaio gaixoari azkarrago osa dadin, dialisia

behar dutenen kopuruak gora egin du eta Usabiagak dion moduan zientziak oraindik ez du odolaren ordezkorik sortu.

Herrian emaila kopuru jaisten ari dela eta arduratuta azaltzen da Joxe. Gainera, aktibo mantentzen diren emailak adinean aurrera doaz eta beharrezkoak dira gazteak hauei lekukoa hartzeko. Denbora falta, kontzientziario falta... gazteak ez dira osasun zentroa gerturatzeko, 18-22 adin artean iaz 12 emaila izan ziren eta 23-27 artean 24. 43-47 adin artean berriz emailak bestelakoak izan ziren, 60 eta 53-57 adin artean azkenik, 43.

Urtean gutxitan egiten den premia gauza da odola ematea eta herrian elkarteak egindako lanari jarraikortasuna ematea garrantzitsua da.

Hitz eta pitz

Odol emaleak beharrezkoak al dira?



Viktor Portularume

Odola ematea ondo iruditzen zait, baina nik orain jada ez daukat materik, gaixotasunengatik. Eta lehenago ere ez dut eman, ezin nuela aspaldi esan zidaten eta. Baina ematea daukanak eman dezala, hori oso ondo dago. Falta duenarentzat ematea, beharrezkoa da. Gazteek eman beharko lukete odola. Medikuek esan behar du, ematerik daukazun ala ez daukazun.



Merve Arizmendi

Ni odol emalea naiz, baina aspaldian ez dut eman ezin dudalako. Aste honetan bertan amari jarri diote eta eritetxean nengoela gizon batek esaten zuen, "nire seme alabekin egon behar dut odola eman dezaten". Gazteak kontzientziatzea beharrezkoa da. Organoak ematea ere ondo deritzot, behin hil eta gero zer inporta du, barrutik zer daukazun ala ez daukazun.



Juan Joxe Oizartzabal

Odol zaharrik ez dute nahi medikuek. Ni operazio asko egindakoa naiz eta ezin dut eman. Hori bai, gaur egun gazteak banintz emango nuke, zalantzarik gabe, baina garai batean ez zen horretarako ohiturarik. Gazteak eman behar du, sasoikoak, sano-sano dagoenak, guk jada ezin dugu eman. Hala ere, odola ematea beti da hobe gaixo gotea baino.



Marisa Deval

Ondo begiratu behar da odola. Beti izan dut kezka. Medikuntza-aldizkarietan irakurri ditudan kasu batzuek beldur handia ematen dute. Esaten dute ordeko produktuak ere badaudela, eta baldin badaude ez dut ulertzen zergatik ez dituzten erabiltzen. Dena den, gaixoak bizirik ateratzeko balio badu eta kontrol zorrotzak egiten badira, oso ondo dago.

Iruditan



2004ko irudian udaltekiko langileak udaltekian bertan odola ematen.

Odol ematea

Odol emateak indartzeko asmoarekin hainbat kanpaina burutu dira urteetan zehar herrian. Horietako baten baitan, udaltekiko langileei zuzenduta, udal batzar aretoa erabili zen odola ateratzeko. 40 urtetan asko dira odola ematera animatu diren herritarrek, askotan gaixotasunak medio, utzi behar izan diote honi eta horrela emaila kopuru jaisten joan da. Belaunaldi berriek ez dutelako aurrekoek utzitako lekua bete batez ere. 2003. urtean Gipuzkoako Oldol emaleen elkarteak biltzarra egin zuen Manuel Lekuona kultur etxean, urtero eskualdeko emaleak biltzeko bazkaria ere egiten dute.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



Lasarte-Oriako Udala

Txintxarrik ez du bere gain hartuko irizti-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizagire, Jon Altuna I.,
Maider Azumendi, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Armuti,
Asier Odriozola, Jone M.
Hernandez, Oihana Salazar,
Pako Aizpitarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amador

GAZTELEKUA

Gaztelekuaren lehen pausuak

Gaztelekuko irudi eta leloa eta gazteen txokoa aurkeztu ditu Udalak

Tasio Arrizabalaga Gazteria eta festak saileko arduradunak ostiralean eskainitako prentsaurrekoan aurreratu zuenez, Gaztelekuari irekita berezia emango diote hilabete honetan. Honetaz gain, Gaztelekuko irudia eta leloa aurkeztu eta gazteen txokoa erakutsi zuen.



Gazteen txokoa prestatu dute herriko gazteek bertan lan egin eta irakur dezaten.

Gaztelekua martxan jartzeko pixkanaka ari dira lanean Gazteria saileko arduradunak. Orain dela hilabete Gazte bulego berria ireki zen Gaztelekuan, eta orain gazte txokoa jarri dute martxan. "Txoko hau gazteek irakurketa, etxeko lanak egiteko, bilera gela edo berariei burututako beste edozein erabileratarako pentsatua dago," azaldu zuen Tasiok.

Honetara dagoeneko gazteak hurbiltzen direla aipatu eta "13 edo 14 urte arteko neska talde bat dator egunero etxeko lanak egitera" zehaztu zuen Alberto Vazquez Gazte bulegoko arduradunak.

Irudia eta leloa

Txoko berriaz gain, Gaztelekuaren irudi eta leloa ere aurkeztu zituzten.

Irudiari dagokionez, mundu osoan ezaguna egin zen Banksy artistaren irudi bat hartu dute oinarri, Palestinan eraiki zuten horman marraztu zuen neska eta honi globo sorta bat erantsi diote. "Guretzat horma bat izan denaren gainetik zeharkatzera goaz. Eta horretarako globo sorta erabiliko dugu," adierazi zuen.

Eta leloa ere ideia honekin bat datorrela adierazi du, "Ideiek hegarazi dezatela".

Izan ere, "Gaztelekua orain arte arazo eta buruhauste ugari ekarri digun horma bat izan da, pausoren bat aurrera eman dugun bakoitzean trabaren bat bueltatu diguna", aipatu eta altzari falta, kontzertuak egiteko baimen eza, entsegu lokalak

intsonorizatu gabeak izatea edo erabili gabeko ur tutuen leherketak sortutako uholde txikia jarri zituen aurkitutako arazoan adibide gisa.

Sare sozialak eta bulegoa

Era berean, Gaztelekuak sare sozialetan bere lekua duela ere jakietara eman zuen. Facebook-en Lasarte-Oria gaztelekua orrialdea eta twitterren @Lgaztea kontua ireki dira.

Hauen bitartez, Gaztelekuari buruzko informazio eta berri ugari eskainiko dituztela aipatu zuen.

Gazte bulegoak ordutegi berria izango duela ere esan zuten agerraldian, "Gaztelekuko ordutegiarekin bat egingo du eta 12:00etatik 21:30era egongo da zabalik".



Argazkian, borobildua esleitu den eraikina eta grisez etorkizuneko eraikiko direnak.

BABES OFIZIALEKO ETXEAK

Buztindegia kalean 30 etxebizitza

Lasarte-Orian babes ofizialeko 30 etxebizitzaren jabetza esleitzeko prozedura ireki du Etxebidek. Etxebizitza hauek Zabaleta Berri auzoko Buztindegia kaleko 4. zenbakian eraikiko dira.

Hainbat izan dira Udaleria informazio bila hurbildu diren herritarrek eta bertan honen berri ematen ari dira. Baina proiektu honen ezaugarri guztiei buruz gehiago jakiteko, Eusko Jaurlaritzaren Zuzenean Herritarren Zerbitzura, Donostiako Andia kaleko eraikineria hurbildu behar da edo www.gizartelan.ejgv.euskadi.net orrialdeko berrien atalean ere aurki daiteke.

Sustapen honetan Etxebiden Donostiako eskualdeko udalerreren batean etxebizitza erosteko eskaria egin duen edonork parte har dezake. Honen berri emateko eskutitzak, mezu elektronikoak eta mugikorrera mezuak bidali ditu erakundeak.

Lasarte-Oriako Udalak gogoratu du sustapen honetan parte hartu nahi duten herritarrek etxean jaso duten eskutitza sinatuta bidali behar dutela bertan agertzen den helbidera, martxoaren 20a baino lehen.

UDALA

Bilduren emendakina 5. edukiontzia

5. Edukiontzia inguruko Batzordeko Lehendakariak, Jesus Zaballosek, otsailaren 19an egindako bileran, aurkeztu zuen Araudiaren zirriborroa aztertu ondoren, Bildu Udala Taldeak emendakina aurkeztu du. Bildu Udala Taldearen ustez, ezinbestekoa da hondakinen kudeaketaren planteamendu integral bat egitea. Ideia horri jarraituz, aipatu Batzordea Hondakinen Kudeaketarako Batzordea izatea eta izendatzea eskatzen du eta 5. edukiontzia ezartzeko batzorde soila.

Gainera Batzorde honetan landuko den gaiak herritarren artean hausnarketa egitea merezi duela ikusirik, Batzordea interesa duen herritar edota herriko talde orori irekitzea proposatzen dute. Zentzu honetan, herritarren parte-hartzea bul-tzatze aldera, deialdiak arratsalde egitea planteatzen dute.

EAJ

5. edukiontzia aldeko argudioak

Lasarte-Oriako EAJ alderdiak Carlos Ormazabal, Gipuzkoako Garapen Iraunkorreko diputatu ohiarekin hitzaldia antolatuzuen ostiralean, batzokian. Hitzaldi honen bitartez ateko baztertu eta bosgarren edukiontzia aldeko argudioak ezagutzera eman zituzten.

Carlos Ormazabal azterketa sakona burututakoa da zabor bilketan dauden hainbat eredu ezberdinen inguruan eta bakoitzaren onurak eta eragozpenak jaso ditu. Halaber, Europar berziklatze mailan aurreratutakoak zein atzeratutakoak dauden herrien esperientzien berri eman zuen.



Jesus Zaballos ostiralean egindako agerraldian.

batean. Zaballosen iritziz, honek udalaren lana erraztuko luke, ez duelako inork interesatzen ez zaiona eman zaiolako uko egingo.

Zuzenketa

PSE-EEn zuzenketa araberako, derrigorrez bete behar diren baldintzak jarriko dira: besteak beste, ogasunarekin zorrak ez izatea, aparkaleku-

ren inguruko etxe batean erroldatua egotea, eskatzaileak autoa izatea, zerga Lasarte-Orian ordaintzea eta herrian beste garajerik ez izatea. Udalak, antzeko baldintzengatik puntuak eman eta aparkalekuak horien arabera banatzea proposatu badu ere, PSE-EEK ez du bat egin eta derrigorrezkoak izan daitezela proposatu du.

Aparkalekuentzat zozketa nahi du PSE-k

Okendo, Tajamar eta Bekoerrotako aparkalekuak banatzeko irizpideekin ez daude ados PSE-EEn, garajeak adjudikatze moduarekin, hau da, eskaera egiten dutenek irizpide batzuen arabera jasoko dituzten puntuak arabera banatzearekin, eta derrigorrezko betebeharrak jartzea proposatuko du biharko udalbatzarrean.

Zaballosek adierazi duenez, zozketa aukera berdintasuna ziurtatzeko egokiagoa da. Hiru zozketa egiteko proposatuko du Udalarenak diren hiru aparkaleku ezberdinetako garajeak banatzeko: Okendon 122, Tajamar-eko biribilgune ondoan, 21, eta Bekoerrotan, Osasun etxe ondoan, beste hiru. Horrela herritar bakoitzak interesatzen zaion garajearen adjudikazio prozesuan izena emateko aukera izango du eta ez banaketa orokor



Herriko Kukuka dantza eta antzerki eskolak eta Jalgune elkarteak Aitor Landa gazte lasarteoiratarra gogoan izan zuten. Garun paralisia gainditu dezan, babes, muxu eta animo guztiak Galiziako ospitale berezira bidali zituzten.



Goian larunbateko emanaldiko une bat eta behean Aitor Landaren senide eta lagunak.

Marrubizko muxuak Aitorri

► Pirritx, Porrotx eta Marimototsek bi emanaldi eskaini zituzten garun paralisia duen Aitor Landari laguntzeko

Txokolate eta marrubizko muxuak hegaka bidali zizkieten larunbatean Aitor Landa gazteari herriko pailazoek Kukuka eta Jalguneko lagunekin batera. Gaur egun, pixkanaka jaten, ibiltzen eta hitz egiten ikas dezan tratamendu berezi bat jasotzen ari da zortzi urteko gaztekoa Galiziako ospitale berezi batean. Elkartasun keinu polita eduki zuten pailazoek, bi emanaldietan eskuratutako dirua senideei eman eta hauek Aitor gaztea laguntzeko erabiliko baitute.

Jon ALTUNA EGITEGI

Pirritx, Porrotx eta Marimotots herriko pailazoek "Sentitu, pentsatu, ekin!" ikuskizuneko bi emanaldi koloretsu eta indartsu eskaini zituzten larunbata arratsaldean Manuel Lekuonako areto nagusian.

Besteak beste amona Josefina, Patatari Jauna, otsoa edota Kintxo Barrilete nikaraguarra oholtzaratu ziren, erritmo bizi-

ko emanaldi luzeak eskainiz, ia bi ordu iraun zituztenak.

Pailazoak ez ziren bakarrik aritu ordea, herritarren laguntza izan baitzuten Aitorri ahalik eta animo zakukada handiena bidaltzeko.

Kukukako neska dantzari gazteek pailazoekin batera hainbat kantutan dantzan egin eta emanaldiaren amaiera aldera Jon Maia bertsolariaren letrekin osatutako "Eskuetan" abestiaren koreo-

grafia egin zuten, bizitza eta mundu berri bat eskuetan dauzkagula gogorarazteko.

Jalguneko lagunak berriz, euren elkartearen ereserkia abestu zuten Pirritx, Porrotx, Marimotots eta Kukuka dantza eta antzerki eskolarekin batera. Ozen entzun ziren gitarra doinuak eta pausoka pausoka ametsak bete egiten direla erakutsi zieten ikusleei.

Aitorri eskainitako "Maite zaitut" abestiaren errematatu zituzten emanaldiak.

Aitor laguntzeko bidea

Era berean, bertara hurbildu ezin izan zutenek eta ekonomikoki lagundu nahi duen orok kontu korronte berezi bat du eskura ekarpena egin ahal izateko: 2101-0048-21-0128308954.

Sukaldari izan nahi al duzu? Etorri Aste Santuko txokoetara

Ttakun Kultur elkarteak "Sukaldari... Patatari!" Txokoak antolatuta ditu Aste Santuko oporretarako.

Sukaldaritzan oinarritutako txoko hauek 2005 eta 2010 urte bitartean jaiotako haurrei zuzendutako txokoak dira.

Saioak zazpi egunetan, martxoaren 25, 26 eta 27an eta apirilaren 2, 3, 4 eta 5ean izango dira, goizez 10:00etatik 13:30era Amaraun Ludotekan.

Sukaldari trebeak

"Sukaldari... Patatari!" Txokotan sukaldean trebe izateko behar den guztiak azalduko zaie HH2 eta LH2 maila arteko haur eta gaztetxoiei. Era

dibertigarrian eta jokoan bidez elikagaia eta zapore ezberdinak ezagutuko dituzte, baita sukaldeko trenak ere.

Honetaz gain, gosari, bazkari, merienda, afari koloretsu eta dibertigarriak egiten ikasiko dute Patatariren errezeta gozoeekin.

Izena ematea

Txokoen prezioa Lasarte-Orian erroldatuak daudenentzat 68 eurotako da eta erroldatuak ez daudenentzat, berriz, 102 euro.

Ttakuneko arduradunek jakitera eman dutenez, goiztxoko zerbitzua ere eskainiko da nahi dutenentzat, hau 9:00etatik 10:00etara izango

da. Prezioa, zerbitzua barne, erroldatuentzat 88 euro eta erroldatuak ez direnek 132 euro ordaindu behar dituzte.

Informazio gehiago eskatu edo izena ematea egiteko hainbat aukera daude, Ttakun kultur elkartera hurbildu, 943 371 448 zenbakira deitu edo aisia@ttakun.com helbidera mezu elektronikoko bat bidaltzea.

Behin izena ematea baieztatua dagoenean, ordainketa egingo da. Hau Ttakuneko bulegoan bertan txartelarekin edo Kutxa-ko 2101 0048 25 0010089696 kontu korronte zenbakian sartu behar da dirua. Izena emate epea martxoaren 21era arte dago irerik.



Eskuak zikindu, gailetak txikitu... denetarik egingo dute txikiek sukaldaitza txokoetan.



Kultur-etxean kontzentrazioa egin zuen Emakumeen Zentro Zibikoak deituta, berdintasunaren aldeko aldarriarekin.

Martxoaren 8a, morez

► *Lasarte-Oriako emakumeek euren eskubideen alde borrokan jarraituko dutela berretsi zuten ostiralean*

Martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna da mundu zabalean eta Lasarte-Orian ere aldarrikapen eguna probestu zuten elkarretaratze, hitzaldi, antzerki eta afariak antolatu eta berdintasuna lortze bidean egiteko asko dagoela gogorazteko. Besteak beste, Emakumeen Zentro Zibikoak, EPA-HHIko Lan eta Lan antzerki taldea edota Rocioko kofradiak antolatu zituzten ekintzak emakumeen eskubideen alde.

Jon ALTUNA EGITEGI

Aldarrikapen eguna izan ohi da martxoaren 8a, kaleetan kolore morea nagusitzen den eguna eta lasarteoriatarrek ez zuten aukera galdu kaleak berdintasun eskariz josteko.

Batetik, Emakumeen Zentro Zibikoak elkarretaratzea egin zuen kultur-etxeko atarian emakumeen eskubide "osoan" aldeko aldarria egin eta berdintasunaren beharrez ohartarazteko. Ostegunean, gainera, Alazne Zaldua psiko-

logoak hitzaldia eskaini zuen Zentro Zibikoan zahartzaroan sexualitatea nola bizi azalduz.

EPA-ko ikasleek urteroko ohiturari eutsiz, antzerki umoretsu eta kritikoa eskaini zuten, oraingo honetan Miguel Mihuraren "Milagro en la casa de los López de..." izan zen aukeratutako obra. Ikusle ugari bildu zen kultur-etxeko areto nagusian, Lopezen luxuzko txaletean gertatzen ziren milakuluei algaraka begira.

Soberakinen dieta

Emakumearen egunaren hari-

ra, Semblante Andaluz elkartearen Nerea Segura dietista nafarrak hitzaldia eskaini zuen nagusiki emakumeak ziren 50 entzuleen aurrean. Segurak hitzaldi parte-hartzailea planteatu zuen "Soberakinen dieta" delakoa ardatz hartuta. Azaldu zuenez, askotan bere buruaz ahaztu eta etxea, lana, umetxoak eta beste hainbat gauza lehenesten ditu emakumeak, "soberakinen" guztiak xurgatuz, zentzu guztietan, baina baita elikadura ikuspuntutik ere.

Bestalde, umetxoak amarengandik jasotako edoskitzearen garrantziaz, edota nerabezaroen emakumearen gorputzetan ematen diren aldaketa fisiologikoez jardun zuen, haurdunaldi garaiari garrantzia emanez. Ostean afari ederra egin zuten elkartearen bertan, legatza saltsan dastatuz.



Lan eta Lan taldeak "Milagro en la casa de los López de..." antzezlan umoretsua eskaini zuen.



Rocioko kofradiak Nerea Segura dietistaren hitzaldia eta afaria antolatu zituen Semblanten.

Film laburren Laburbira zirkuitua Jalgin asteazkenean

Laburbira, euskarazko ikus-entzunezko produktzioa ezagutarazi eta herrietako kultur eskaintza aberasteko helburua duen zirkuitua da.

Zirkuitua Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak antolatzen du herriz herriko euskara elkarteekin elkarlanean eta Eusko Jaurlaritzaren kultura saileko zein Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien babesa du.

Aurtengoa Erandion hasi da, martxoaren 4an, eta martxoaren 29ra arte 20 herritan izango da.

Lasarte-Orian emanaldia asteazkenean, martxoaren 13an izango da Jalgin 21:00etatik aurrera.

Aurtengoa hamargarren edizioa da eta zortzi izango dira eskainiko diren film laburrak.

Zortzi film labur

Asteazkenean Jalgin zortzi ikus-entzunezko labur eskainiko dira, 2011n eta 2012an sortutakoak guztiak.

Sustatzaileek azpimarratu bezala ordu eta laurden inguruko emanaldian, "sormena, dokumentala, fikzioa zein animazioa" uztartzen dituzten ikus-entzunezkoak izango dira ikusgai.

Film laburren zuzendariei dagokienez, ibilbide luzeko egileen eta sortzaile berrien lanak ezagutarazteko ahalegina egin nahi izan du Laburbirak

urtero moduz. Hau kontutan izanik, honakoak izango dira ikusi ahal izango diren lanak eta hauen zuzendariak, "Beerbug" (Ander Mendia), "Berriro igo nauzu" (Carlos Rodriguez), "Desentxufatuak" (Bernues anaiak), "Deus et machina" (Koldo Almandoz), "Elkartea" (Kote Camacho), "Hamaiketako" (Telmo Esnal), "Oinaze egoitzak" (Oihan Amezua, Karlos Ibarbia, Netzer Bereziartua, Asier Sustaeta) eta "Tortila" (Iñigo Lopez).

Film laburren sinopsiak <http://www.topagunea.org/laburbira> helbidean aurki daitezke. Asteazkeneko saioa irekia da eta ez da sarrerarik ordaindu behar.



Bernues anaien "Desentxufatuak" filmeko irudia.

ERRUGBIA.-

Beltzak taldearen jardunaldi gazi-goza

Beltzak Gure Etxeak galdu egin zuen Baztanen aurka kadeteen Euskal Ligako partidua, 29-36

Kadete mailan porrota jasoagatik, Beltzak-Zarauz taldeko infantilek nagusitasunez irabazi zuten Eibarren kontra igande goizean Michelinen jokotutako norgehiagoka. Zarauztar mutilekin batera osatutako hamabostekoak erraz menderatu zituen armaginak, 65-7ko jipioia emanez. Txanponaren bi aurpegiak ikusi zituzten asteburuan.

Jon ALTUNA EGITEGI

Escolarteko infantilen partiduen ostean jokatu zuten Euskal Ligako neurketa Beltzak Gure Etxea taldeko mutil indartsuek.

Partiduari ezin hobeto ekin zioten etxekoek, 10. minutuan Patxi Gabilondok lehen uztartzea egin eta 30. minuturako beste bi ere lortuak baitzituzten Ander Rekondoren lanari esker. Xabi Prietok eduki zuen uztartzea egin osteko kolpe gehigarria gauzatzeko ardurua eta 17-0eko markagailua lortua zuten dagoeneko.

Lehen zatia bikain amaituko zela zirudienean, azken jokaldian Baztanek Beltzaken defentsa lerroak hautsi eta uztartzea gauzatu zuen, kolpe gehigarriaren bi puntuak gehituta, 17-7 joan ziren aldagelertara mutil guztiak.

Bigarren zatian kamuts

Baztandarren nagusitasuna bigarren zatiko lehen jokaldian azaleratu zen. Bosgarren minutua betetzerako uztartze bat egin zuten eta nafarren moralak aparra bezala egin zuen gorantz hortik aurrera.

Hurrengo jokaldian berdinketa ezarri zuten baztango mutilek, 17-17.

Etxekoak ez ziren kikildu ordea. Zainetan daramaten amorrua eta zaleen laguntzari esker, lerroak aurreratu eta alboko "touch" bat probestu ostean, Patxi Gabilondok uztartzea lortu zuen berriro ere eta Xabi Prietoren oin-kolpeak bi puntu gehigarriak eman zizkion taldeari.

Gutxi iraun zien pozak etxekoei, baztandarek berriro ere berdinketa ezarri eta partidua amaitzeko 10 minuturen faltan uztartzea egin baitzuten



Ander Rekondo Beltzak taldeko jokalaria baloia eskutan duela, entsegua gauzatzear.

24-31.

Beltzak taldea ez da erraz amore ematen duen horietakoa eta Ivan Olmos zarauztar gazteak jokaldi bizi baten bidez entsegua egitea lortu zuen. Tamalez, Prietok ezin izan zuen kolpe-gehiarria gauzatu, 29-31 beraz.

Zorte apur bat falta izan zitzaizkien etxekoei igandean eta sailkapenaren lidertzan doazen baztandarrei berriz irri egin zien zoriak. Partidua amaitzear zela entsegu baten bitartez eman zioten neurketari heriotza-ukaldia. Azken emaitza: 29-36.

Hirugarren denboran hamaiketako jaten ari zirela nabari zen goibeltasuna etxeko morroskoen artean, baina hurrengo astean Igorrera gogoz joago dira, Arratiko Zekorra taldeari gauzak zail jarri asmoz.

Berri onak Beltzakentzat

Honetaz gain, larunbatean, Beltzak Ostadar eskolako Mikel Millan eta Lander Gorostegi gazte infantil federatuak Euskadiko selekzioarekin entrenatu ziren Plentzian.

"Berri onak dira hauek eta eskolako kideak, bai jokalaria

bai entrenatzaileak motibatzeko balio du", aipatu dute eskolako arduradunek.

Bestalde, martxoak 2 eta 3an, Beltzak Ostadar Errugbi eskolako infantil federatu eta escolarteko infantil taldeko kideetako batzuk Pauen izan ziren eta Zarauz taldeko lagunekin batera adiskidetzat asteburua izan zuten.

Mendian elur-eraketekin ibilaldia, Pauko alkatearekin afaria, entrenamenduak, haien artean partidua eta Frantziako lehen mailako errugbi partida bat ere ikusi zuten lagunarteko giro onean.

IGERIKETA.-

Estatuko txapelketako finaletan

Buruntzalde IKT-ko Iñigo Ibarburu eta Itsaso Tolosa gazteak otsailaren 28tik martxoaren 3ra Palman ospatu zen infantil eta junior mailako Estatuko txapelketan izan ziren lehian eta biek B finaletan parte hartu zuten.

Iñigo Ibarburuk infantil mailako 100 metro libre eta 100 m. tximeleta probetan parte hartu zuen.

100 metro libreetan, "bikain ibili zen" Iñigo. Izan ere, bai sailkapen proban, baita B finalean ere bere marka hobetu zuen.

100 metro tximeleta proban "aurreko eguneko 100 libreko markak segurtasun handia eman zion eta dena ematera ateratzen, aipatu digu Borja Apeztegia entrenatzaileak.

Honela Ibarburuk kanporaketan bigarren denboran onena egin eta bere marka



Iñigo Ibarburu eta Itsaso Tolosa txapelketako atseden batean.

BURUNTZALDEA IKT

hobetu eta gero, B finalean berriro jaitzi zuen marka, 59sg 40 ehuneko.

Buruntzaldea IKT-ko entrenatzaileak jakitera eman duenez, "igerileku luzean froga honetan minututik jaisten duen lehen taldekidea da".

Era berean, Itsaso Tolosa ere junior mailako 200 bizkar probako B finalean izan zen.

Honetan aukera askorik ez zegoenez, "proba beste modu batean egiteko aprobetxatu genuen eta denbora berdina egin zuen Itsasok baina goizean baino askoz ere erlaxatuago eta proba hobeto maneiatuz. Aldaketa horrekin oso gustura geratu ginen eta berari ikasteko ere balio izan ziola uste dugu". aipatu digu entrenatzaileak.

LABURRAK.-

Landaberri 06 saskibalo taldea hurrengo faserako sailkatua

Lasarte-Oriane nesken saskibalo harrobia indartsu dabil azken aldira. Ostadar SKT eta infantil txiki mailako Landaberri taldeak bezala, escolarteko mini mailako Landaberri 6 taldea hurrengo faserako sailkatu da.

Noelia Bermejok zuzentzen duen taldeak urtarrilaren 12an hasi zuen Donostialdeko eremuko txapelketa. 8 jardunaldi jokatu eta zortziak irabazi ostean, lortu du hurrengo faserako txartela.

Orain, Oria eremuko txapelketaren aurka joan-etorriko bi partida jokatu behar ditu, apirilaren 13 eta 20ean. Irabazleak Gipuzkoako txapelketako azken fasean parte hartuko du eta lehen aukaria Donostiako irabazlea izango litzateke.

Maila honetan ere Landaberri 5 taldeak parte hartu du. Honek hirugaren postua eskuratu du, 6 partida irabazi eta bi galdu ostean.

Zorterik ez bola-jokoko bikote txapelketan

Urtarrilaren 17an Usurbilen hasi zen bola-jokoko bikotekako txapelketa eta Aia eta Lasarte-Oriane jokotutako jardunaldien ostean, otsailaren 17an amaitu zen Idiazabal. Txapelketan 23 bikote izan ziren lehian eta Urnietako Xabier Iruetagoiena eta Jose Angel Belaunzaran izan ziren irabazleak.

Ostadar SKT-ko bi bikotek ere parte hartu zuten baina ez zuten zorterik izan. Joxean Lasa eta Josu Lasak osatutako bikoteak hamaikagarren postuan amaitu zuen. "Postu ona baina hobetu ahal dena" aipatu digute ataleko arduradunek. Eta Joxean Montes eta Inaxio Otaegui, berriz, 17. izan ziren. "Azken postuetan asteak egon ondoren, postuak onargarria da".

Agenda

Asteazkena 13, 21:00etan, Jalgi Kafe-antzokian



Laburbira zirkuituko filmak ikusgai

Topaguneak antolatzen duen Laburbira zirkuitua Lasarte-Oriara iritsiko da asteazkenean. Honetan Carlos Rodriguez, Oihan Amezuza/ Karlos Ibarbia / Netzer Bereziartua / Asier Sustaeta, Kote Camacho, Koldo Almandoz, Bernues anaiak, Telmo Ensal, Iñigo Lopez eta Ander Mendiak 2011 eta 2012. urtean grabatutako zortzi film labor ikusiko dira. Ordu eta laurden inguruko emanaldian, sormena, dokumentala, fikzioa zein animazioa uztartzen dituzten ikusentzunezkoak izango dira. Doan.

Antzerkia, bertso, musika, poesia... batzen ditu. Unai Muñoa eta Ander Lizarralde bertsolariak, Imanol Kamio piano jole eta akordeoi jolea, eta Aitor Atxega gitarra jolearen eskutik. Sarre- ra, leihatilan 3,50 euro; internet bidez, 3,24 euro.

Ostirala 15, 20:00etan

18. Korrika Lasarte-Orian aurkezpena egingo du, Muntteri-AEK euskaltegiak.

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Martxoaren 18tik 31era

Aurreko Korrika lasterketako argazki erakusketa ikusgai izango da. Korrika kulturalaren barruan Ttakun K.E.-k antolatutako ekintza.



Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 17, 17:00etan

Haurren zinea atalean, "Blackie eta Kanuto" filma ikusgai izango da. Sarre- ra, leihatilan 3,60 euro; internet bidez, 3,18 euro. Euskaraz.

Hitzaldia

GANBO ITURRI ELKARTEKO EGOITZA

Asteazkena 13, 19:00etatik aurrera

"Pyreneus" sarea hitzaldi zikloaren

barruan, Jose Mari Larramendi Jose Maria Arizmendiari elkarreko kideak "Lana da erabakigarria, kapitala, berriz, bitartekoa" hitzaldia eskainiko du.

Dantza

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Larunbata 16, 19:00etan

Gero Axular Dantza Taldeak "Argizaiola" lana aurkeztuko du.



Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Martxoaren 17ra arte

Ttakun kultur elkarteak antolatzen dituen udal- lekuetako "Duda? Euskaraz Uda!" argazki erakusketa ikusgai dago.



18. Korrika

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN

Osteguna 14, 20:00etan

Korrika kulturalaren barruan, "Ez gara Palestinaz ari" ikusizuna eskainiko da.

Herritarren txokoa

Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota, ezkontza eraztuna, bi ordulari, zortzi betaurreko graduatu, patinete bat, euritako anorak bat, lau mugikor eta haur baten berokia.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatu- zen herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, goizez 09:00etatik 13:00etara.

Berpiztu lokal bila

Berpiztu Giza ekimenerako elkarteak lokal bila ari da elikagaiak eta banaketa egiteko. Elkarteak astelehenero 100 familiari janaria banatzen dizkiete eta lokal bat behar dute bere ekintza aurrera eramateko.

Lokala uzteko prest dauden herritar- rarak, 629 445 949 telefono zenba- kira deitu behar dute.

Biyak Bat-ekok irteera Iratxera

Biyak Bat elkarteak 2013. urteko irteerei hasiera emango die martxo- a-

ren 21ean. Oraingoan, Lizarraldera egingo dute, zehazki Iratxeko monas- tegira.

Izena ematea gaur ireki da. Txangoan parte hartu nahi dutenek Biyak Bat elkarteke bulegoan eman behar dute izena, 10:30etik eta 12:30era. Irteeraren prezioa 34 euro- takoa izango da elkarteke bazkideen- tzat eta bazkide ez direnek, aldiz, 38 euro ordaindu behar dituzte.

Biyak Bat elkarteke kuota

Biyak Bat Erretiratuen elkarteak bere bazkideei jakin arazten die urteroko kuota, 8 euro, martxo amaiera arte ordaindu ahalako dela egoitzako bule- goan goizeko 10:30etik 12:30era.

Era berean, hiru hilabete hauetan, 2011 eta 2012 urteko bazkidetza ordaintzen ez dutenei baja emango zaiela jakitera ematen du elkarteak.

85 urtetik gorako bazkideek ez dute ordainketarik egin behar.

Ostadar SKT-eko bulegoko ordu- tegia

Ostadar SKT-ko bulegoa 18:00etatik 20:00etara egongo da irekia astelehe- netik ostiralera.

Uztaro kooperatiba

Badira urte batzuk Uztaro Kooperatiba Lasarte-Orian martxan hasi zenetik. Kooperatibaren xedea janariaren kontsumo arduratsu bat izate- rena da, bertakoa eta ekologikoa.

Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratza, Beizaman kokatua dago. Astelehenero, Danok Kide elkarteke lokalean banatzen dira barazki eta frutak, garaian garaikoak eta ekologikoak.

Kooperatiba honen proiektua gus- tuko dutenentzat ateak zabalik dituz- tela jakitera eman dute Uztarokoek. Informazio gehiago eskuratzeko uzta- rolasarteoria@hotmail.com helbidean.

Marrazki eta margo klaseak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jaki- narazten du, marrazki eta pintura kla- seetan izena emateko aukera dagoela. Klaseak asteazken eta ostiraletan dira, 18:30etik 20:30era Manuel Le- kuona kultur-etxeke 2. solairuan. Interesa duten herritarrek gerturatu daitezela klase orduetan.



Baionara autobusa

Munterri-AEK-k autobusa antolatu du Baionara joan eta Korrika 18-ko amaiera ikusteko. Jalgi ondotik atez- rako da 9:30etan eta 21:00etan atez- rako de Baionatik Lasarte-Oriara.

Izen ematea, Ilargi, Jalgi eta Munterri AEK euskaltegian izango da eta 10 euro ordaindu behar dira. Zerrendan izen-emateko azken eguna, martxoaren 21a.

Korrika laguntzaile txartelak

Korrika 18-ari babesa emateko laguntzaile txartelak honako lekue- tan daude salgai: Jalgi Kafe-antzo- kia, Artizar taberna, Ilargi taberna eta Munterri-AEK-n.

12 euro balio duen txartela ero- siaz, laguntzaile direla adierazten duen pina eta Euskal Herriko ehunka komertzioan beharpenak eskura- tuko dituzte herritarrek.

Korrika 18-ko arropa salgai

Korrika 18-aren arropa, kamisetak, sudaderak, etab. erosi nahi duten herritarrek badute lekua. Materiala Urruzola mertzerian salgai dago.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Aitor Atxega Musika irakasle eta musikaria

“Bertsoak kantukera propioa du”

■ Muñoa bertsolariaren “Ez gara Palestinaz ari” saioa ostegunean 20:00etan kultur etxean
 ■ Aitor Atxega musikariaren iritziz, “ikusleei zer pentsatua eragingo die ikuskizunak”

Aitor Atxega, Asteasuko eskolako musika irakaslea, bertso idatziei musika jartzen ari da aspaldion Imanol Kamio musikari hernaniarrekin. Orain, Unai Muñoa eta Ander Lizarralde bertsolariekin batera “Ez gara Palestinaz ari” ikuskizuna ondu dute. Ostegunean, martxoaren 14an eskainiko dute Manuel Lekuona kultur-etxean, 20:00etan. Bi herritar egongo dira oholtza gainean, Muñoa eta Atxega. Gu gitarra-jolearekin egon gara ikuskizunaren berri izateko.

Jon ALTUNA IZA

Andoaingo Basteron estreinatu zuten “Ez gara Palestinaz ari” bertso ikuskizuna otsailaren 1 eta 2an. Unai Muñoa lasarte-riatarrak eta Ander Lizarralde oiartzuarrek prestatu dute Aitor Atxega eta Imanol Kamio musikariekin batera eta oraingoz harrera ezinhobea izan du Andoainean eta Oiartzunen. Martxoan beste bost saio egingo dituzte, lehenengoa ostegunean Manuel Lekuonan.

Aitor Atxega musika irakaslea da, baina ez du sekula eskenatokia utzi, 1991ko udan Ataunen Joseba Iparragirre soinu-jolearekin bere lehen berbenan jo zuenetik. Urte haietan erromeriak eta trikitilariak ziren modan, geroago “Mal de Ojo” eta “Haragi Gordina” rock taldeetan jo zuen, eta azken urteotan bertsolarietara laguntzen ari da.

Zer moduz “Ez gara Palestinaz ari” ikuskizunean? Gustuko al duzu formatu hori?

Formatu txikia gero eta gehiago gustatzen zait, une honetan erazago aterako nintzateke eskenatokia gitarra batekin bakarrik, nire instrumentua berez baxua bada ere, kontzertu handi batean baino.

Oso eroso ari naiz, eta, azken proiektu honekin are gehiago esker ona ari gara eta ikusten. Duela bi ostiral, aretoa bete egin zen Oiartzunen, 250 lagun egon ziren ikusten eta kanpoan geratu zen jendea. Andoaingo Bastero bi aldiz bete genuen. Aurretik uste baino gehiago gustatu zait jendeari.

Eta zuri, gustatu al zaizu?

Bai, asko. Ausardia behar da bertsolarietara egiten dutena egiteko. Beraiena kantatzeko. Batetik egiazkoa delako eta bestetik musika eta bertsoz aparteko kontuekin jantzi delako. Off ahotsak egiten asko disfrutatu dugu, bideoak egin ditugu, baina aldi berean oso ikuskizun sinplea da.

Gomendagarria da beraz...

Ez dago gaur egun horrelako proposamenik. Ez da bertsoa, ezta musika ere. “Ez Dok Hamairu” taldekoek sentikarria hitza erabili zuten.

Gizonen eta harremanen kontuak, haurtzaro eta zahartzaroa, gaztaroko zalantzak... jende askok ikusiko du bere burua hor isladatua. Gainera handitasunik gabe kontatuta dago, oso zuzena eta argia da, artifizio gutxirekin egina.

Zer pentsatua ematen du...

Bai eta ez han ikusitakoari buruz, baizik eta zer pentsatua norberari buruz.

Musikak bertsolarietara laguntzeko, elkar ulertzea garrantzitsua izango da, ezta?

Bai, ordu asko egin dugu elkarrekin. Bi urte bete dira hasi ginenetik. Asko landu dugu eta asmatzen dute kantuan, ez bakarrik espresioan. Kantakerak nabardurak ditu eta atseginak da. Musika beti atzetik doa, gure beraien arnasari jarraitzen diegu. Partitura badago, baina, elkar ulertzea ere bai.

Eszenaratzea ere bitxia da. Off-eko ahotsak, bideoak, kamerinoan oholatzan... denetarik dauka ikuskizunak.

Saiatu gara bi bertsolarien barneko istorioak azaleratzen eta irudietara ere eraman ditugu. Irudia eta musika sugerenteak dira. Ez dugu melodiariak jotzen, beti armoniekin ari gara jolasean eta iradoki egiten dugu. Oso arina da. Hasieran beldurra genuen ez ote zen oso etereo izango, baina badirudi tonua gustatu dela.

Beraiantzat lagungarri izan al da zuek musika irakasle izatea?

Bai, oso irekiak izan dira, oso umil etorri dira, egorik gabe, eta guk aholkatu dieguna ehunetik ehunetik onartu dute.

Gero konturatu dira askoz erosoago kantatu dutela, askoz hobeto. Guk bertsoarekin dugun eskarmentuak asko lagundu die, izan ere, bertsoak kantukera propioa du.



Imanol Kamio piano-jolea, Ander Lizarralde eta Unai Muñoa bertsolariak eta Aitor Atxega gitarra-jolea Bastero aretoan.

“Oso plaza gozoak dira. Une honetan bost mila pertsonen aurrean eta 40.000 watt-ekin jotzea baino gehiago gozaten den txikitetasun horretan.

Imanol eta biok aspalditik ari zarete proiektu ezberdinetan elkarrekin, ezta?

Oso ondo moldatzen gara. Eñaut Agirrerekin hasi ginen. Bakoitzak gure rolak hartuta dauzkagu. Nik erritmoan eta amasean laguntzen dut, eta berak armonian. Agirre bertsoak kantatzen paregabekoa da.

Zer moduz berarekin “Historiariari hari zahar horri” ikuskizunean. Herriz herri al dabil?

Bai, baina gutxiago. Oso ikusle jakinentzako prestatuta dago ikuskizuna, bertso adiktotoentzat.

Bertso historikoen bilduma da, zer dauka ikuskizunak?

Ikuskizunaren zati bat, antologia, finkoa da, beti egiten dugu, eta bestalde, joaten garen lekuko bertsolari zaharren hautaketa bat egiten dugu, bertako bertsolarietara perlatu eskatu eta Eñaut Agirrek berak propio sortzen ditu bertso batzuek. Bertso jarri horiek dira emanaldiaren balio erantsia. Propio herri eta momentu horretarako jarritak.

ko bertsoak. Hori ez dut uste inork egiten duenik.

Aurretik, besteak beste, Txirritaren eta Pedro Mari Otañoren bertsoak kantatu dituzue...

Bai enkargu konkretuak izan dira, baina errepikatu ezin daitezkeenak. Eñauten bereiztasuna hori da, esklusibitatea, momentu konkretu baterako prestatzen ditu emanaldiak.

Zu bezalako bertsoadiktorea gustura ibiliko da horrelako ikuskizunetan, ezta?

Bai, plaza gozoak dira. Une honetan bost mila pertsonen aurrean eta 40.000 watt-ekin jotzea baino gehiago gozaten dut txikitetasun horretan. Normalean emanaldi hauek joaten den jendea, propio horretara doa eta ikusle oso esker onekoa da. Plazatik, aldiz, edozein pasatzen da.

Zuk ere egiten duzu bertsoan lagunartean...

Bai, oraindik bai. Larraulen antolatzen dudana kantu afarian inguruko herrietako lagunak elkartzen gara eta hamarretik

hamaikatan bertsoan bukatzen dugu. Afizio handia daukat.

Orain Unai Muñoa gisako bertsolarietara jardunda zer-bait ikasiko zenuen?

Ez pentsa. Hauenak olerkiak dira. Baina, bai, beti ari gara ikasten. Bertsoen munduan asko gozaten dut.

Musikari bezala egin dituzun artean zer azpimarratzen duzu?

Plazatan aurreraren “Mal de Ojo”-rekin iritsi ginen, baina, pertsonalki “Haragi Gordina” taldearen diskoa dut gogoko.

Gari hartan “Haragi Gordina” taldearekin “a tope” genbiltzan eta oso polita ateratzen. Pare bat urte aritu ginen eta, esan bezala, diskoen artean plazerik handiena eman zidan.

Eta ez zait inoiz ahaztuko “Bero bero” kantua. Sortzaile guztiak nahiko luketen zer bait dauka. Harritzen naiz oraindik nola iristen den ikusita. Letra Pablo Suberbiolarena da eta musika nirea. Baliabideak egon ziren eta estudioan grabatu zen gainera. Beti ez da ateratzen horrelakorik, izarrak lerrokatu egin ziren...

Bestalde, mundiala izan zen Euskararen Maratoi batean araba eta Urruk osatu genuen orkestra, 2005eko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako kantua ere egin genuen, baina gauza guzti horiek pasa egiten dira.